

Iñaki Murua

Bokaziozko bakazioak!

G

uk gazteagotan hala esaten genuen: *bakazioak edo barkazioak*. Gero hasi ginen oporrak deitzen eta geroago hasi gara hainbati entzuten: *orain arte lanean egon da eta orain oporretan dabil*. Eta egia da, oporretan egun ibili egiten gara gehienok, bai. Eta lanean egon? Baita. Gehienok. Agian horregatik ibiltzen gara joan nahi ezta!

Irakasleok opor luzeak, luzeegiak, dauzkagun fama daukagu. Batzuek diote hiru hilabete ditugula udan; bestetzuek bi eta, nik dauzkadanak, sei aste dira. Besteak beste, kurtsuan zehar atzera utzitako lanak egiteko ederki datozkidanak eta hurrengo ikasturtean egin behar dudana antolatzeke ere bai, erlaxatu, eguzkia hartu, mendian ibili, lagunekin parrandan jardun, ezer egin gabe egon eta gainerako guztiarekin batera.

Beste batzuk urrutira joatea dute helburu, nahiz eta han hoteletik atera gabe egon... Gure gurasoak, berriz, ezta etxetik irten ere, beti zuten adinekoren bat zaintzeko, edo abereak gobernatzeko edo xoxik ez edo... eta irtendakoan, bidean ikusitako behien narraideaz inbidiatan edo halako tokitako soroak nolako patxada zuen edo baratza-ko *hermosura!*

Badira ekintza exotikoez gozatzeko gai direnak ere, adibidez joan zen asteburuan sega pikan ari ziren Ordizian: normarik gabe, zahatoarekin, urarekin, joanetea abarka zulutik kanpora begira... lagunak, aita-semeak... eta jendea begira patxadan: baserritarrak eta izandakoak, urteetan ikusi gabeko lanarekin txoratzen. Kalekumeentzat berriz, ekintza arraro hark Rock jaialdia zirudien. Hura musika, 22 sega pikatzaileen artean. Eta, azkenean, epaileek erabakitakoa txintik atera gabe onartu, gainera! Eta sari bakarra sega eta txapela, dirutza futbolarietzat utziz. Denak pozik, inolako pikerik gabe, beti elkarrekin pikatuta gabiltzan garaioan. Behin tabernari bati galdetu omen zioten: ba al daukazu zerbait pikatzeko? Bai, sega atarian!

Guraso gehienak umeak eskolara noiz hasiko egoten omen dira, kokoteraino haiek agoratu beharraz, eurak ere lanean betiko mar-



DANI BLANCO

txan ari balira nahian. Behin hartuko oporrak eta orduan sekula baino istilu gehiago etxean! Nik ulertzen dut laukiak dituen ama batek esandakoa, joan zen astelehen goizaz: "Goizean, umeak eskolan uzten ditudanean *gintonik* bat hartuko dut ospatzeko!". Baina, guraso gehienontzat oporraldiak ez al luke izan behar umez gozatzeko parada?

Gero lanean hasitakoan datoz: alferrik galdutako aukeraren zama; gozaten asmatu ezaren damua, berriro aldapa gora egin beharren depresioa; pazientzia eza eta erlazioetako porrota –hamarretik hiru bikote banantzen omen da abuztuko oporren ondoren. Ez daukat lotuago sentitzen direnen daturik–.

Irakasleok dena konpontzeko ardurak daukagu, batzuen ustez: drogaren kontsumoa, biolentzia, errespetu eza, eskolako porrota... eta zer espero dugu etxean lekurik aurkitu ezinda eta, gurasoak, eskolan lehenbailehen hasteko desatzen dituela sumatu duen ikaslearengandik? Gainera, irakasleok ere, etxean, antzeko egoera bizi izan badugu, ikasleak eta guk lehen egunetik talka egiten badugu, zer eta nola espero dugu konpontzea? Non hasten da porrota? Nork hasten du porrota?

Gizon-emakume izateko prozesuan badira matematikako edo ingeleseko nota baino garrantzitsuago diren baloreak, baina gizarte hel-

duak soilik transmititu ditzakeenak eta bakoitzak adibide izanaz: xamurtasuna, maitasuna, aukera-berdintasuna, trebetasuna, gauza guztien neurritasuna, neurri horiek adostu eta errespetatzeko gaitasuna... Behar beharrezkoa da transmisio horretan adostutako elkarlana. Oporrek prozesu baten etena suposatzen dute baina ez, inolaz ere, heziketa prozesuaren etena, batez ere adin eta aro kritikoenetan.

Horrez gain, nire ustez, lana balore bezala transmititu behar dugu nola profesionala hala bokaziozkoa eta hau da hain zuzen ere, taldea, familia, lagunartea, koadrila... sendotzen laguntzen duen bide bakarra. Bakazioak gozatzeko erakusten digun bidea. Baina hau ere bokazioz egin behar da-eta. ■

Nik ulertzen dut laukiak dituen ama batek esandakoa, joan zen astelehen goizaz: goizean, umeak eskolan uzten ditudanean *gintonik* bat hartuko dut ospatzeko! Baina, guraso gehienontzat oporraldiak ez al luke izan behar umez gozatzeko parada?